

Donostian, 2020ko abuztuaren 12an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Aitzole Araneta Zinkunegi Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 90. eta 91. artikulua oinarri, **Hirigintzako lizentziak emateari dagozkion tasak** aldatzeko Arau Proposamen hau aurkezten diot, azterkizun, Udalbatzari.

JUSTIFIKAZIOA

Lokalak eta etxebizitzak berritzeko beharrak ezinbestekoak dira; lehenengoetan, batez ere negozioa hobetzeko, bai jardueraz aldatzeko, bai behar den bultzada eman ahal izateko ezinbesteko den zaharberritzea egiteko, gaur egun behar bezain lehiakorra izateko, saltoki txikiak egoera larrian baitaude. Etxebizitzetan ere, denborak aurrera egin ahala, beti da beharrezkoa obra txikiagoren bat egitea.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak hirigintza jardueraren baterako lizentziak emateagatik tasa arautu eta eskatzen du.

Lizentzietan % 3ko igoera proposatzen dugu, obra txikietan izan ezik. Eta, bestetik, zenbatekoaren tasa ordaintzetik salbuetsi daitezkeen obrek 6.000 euro arteko exekuzio kostu erreala izatea, Udal Zerbitzu Teknikoek gainbegiratu.

Hori dela eta, Udalbatzari honako hauek onartzea proposatu diogu:

LEHENENGOA:

Ordenantzaren 6g artikuluari dagokionez, obra txikietarako lizentzian 3.606 euro ordaintzetik salbuesteari dagokionez, muga hori 6.000 eurokoa izatea proposatzen dugu, eta, beraz, salbuespena Udal Zerbitzu Teknikoek gainbegiraturako exekuzio kostu erreala 6.000 eurotik beherakoa izatea, baldin eta obrak, Ordenantzak ezartzen duen bezala, lizentzia eman ondoren egiten badituzte.

BIGARRENA:

Erantsitako eranskinean jasotako gainerako hirigintza lizentziei dagokienez, tarifa % 3 igotzea proposatzen dugu. Ez da igoera hori aplikatuko obra txikietarako lizentzietan, eta tarifa berari eutsiko dio Udalak, hau da, 102 euro.

HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEARI DAGOZKION TASAK

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoen eranskina

Egitate zergagarria	€
Partzelaketa lizentzia.	263,74
Lur mugimenduetarako lizentzia.	545,06
Eraikuntza urbanizazioko proiektuan sartuak ez dauden azpiegiturak urbanizatu edo eraqiteko lanak egiteko lizentzia.	545,06
Dorre-garabiak jartzeko lizentzia.	263,74
Eraikinak botatzeko lizentzia.	263,74
Eraikuntza lanetarako lizentziak.	545,06
Lan txikietarako lizentzia.	102,00
Kartelak jartzeko lizentzia.	132,25
Lehenengo erabilera egiteko lizentzia:	
- 500 m ² baino gutxiagoko lokaletan egindako eraberritze lanak, birgaitze osorik edo erabilera aldketarik ez badakarte.	102,00
- Gainerako obrak edo erabilera aldketak.	255,00

HIRUGARRENA:

Akordio hau izapidetzea 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sar dadin, 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituta. Ulertu beharra dago behin-behineko prozedura behin betiko bihurtuko dela erreklamaziorik aurkezten ez badute.

Sinatua: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.